

ARAUTEGIA
MAHAI TENISA 2019

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Mahai Teniseko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2019ko maiatzaren 25ean Portugaleteko Zubi-Alde Udal Kiroldegian (Bizkaia). Hona hemen arautegia:

1- JOKATZEKO MODUA

TALDEKAKO TXAPELKETA:

Hiru taldeko bi multzo izango dira, liga bat jokatu dute elkarren artean itzuli bakarrera.

Jokalari bakoitzak bi partida jokatu ditu, ondorioa, emaitzak honako hauek izan daitezke: 8-0, 7-1, 6-2, 5-3 o 4-4. Berdinketa ematekotan (4-4) bi biren aurka partida bat jokatu da.

Talde bakoitzak bere jokalarien txandak zehaztuko ditu. Talde batek ABCD eta besteak XYZW hizkiekin jokatu du.

Bi biren aurkako partida jokatu balitz, talde bakoitzak erabakiko du parte hartuko duten jokalaria.

Partida bakoitza 4 mahai ezberdinetan denbora berean jokatu da. Partiden ordena honako hau izango da:

A taldea	X taldea
A	X
B	Y
C	Z
D	W
A	Y
B	X
C	W
D	Z
Binaka	Binaka

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuek final aurreak jokatu dituzte. Partidak 3 set era jokatu dira.



BANAKAKO TXAPELKETA:

Bi txapelketa jokatuko dira: Neska eta mutilena.

Mutilen txapelketan 3 jokalariz osatutako 6 talde egingo dira. Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak hurrengo fasea jokatuco dute. Bi garren fase hau era honetan burutuko da:

Final zortzirenak: Bigarren sailkatutako 6 partaide eta 5. eta 6. taldeko lehen sailkatuen artean 4 partida jokatuco dira.

Final laurdenak: Aurreko taldeetako irabazleak eta 1-4 taldeetako lehen sailkatuen artean jokatuco dira.

Nesken txapelketa talde bakarrean antolatuko da. Ospatu ahal izateko bi lurralde ezberdinetako 6 partaide izan beharko dira gutxienez.

Txapelketa bietan 5 set era jokatuco dira.

2- TALDEEN OSAERA

Partaide guztiak infantil mailakoak izan behar dira, 2005 eta 2006an jaiotakoak.

Talde bakoitza 4 taldekidek osatuko dute, eta mistoa izan beharko da, neska edo mutil bat gutxienez parte hartu beharko dute.

Partidak kamiseta eta praka motz edo gonaz jantzita jokatu beharko dira, eta debekaturik dago txandaleko jaka edo prakekin jokatzea. Talde bereko jokalaria guztiek, gizonezko eta emakumezkoek, antzeko jantziak eraman behar dituzte, baina ezingo dute txuri eta laranja koloreetakoak eraman.

Jokalarien kirol lizentziak lehiaketako epaileari aurkeztu beharko zaizkio, foru aldundiak behar bezala zigilatuta eta lehia hasi aurretik.

3- JOKORAKO MATERIALA

Antolakuntzak 6-8 mahai homologatu jarriko ditu, baita pilota ofizialak ere.

Jokalarien erraketek egungo araudia bete beharko dute, eta ezingo da kolarik erabili.

4- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldeka: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte.
- Banaka: urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak jasoko dituzte.

6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7- AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Mahai Teniseko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.